

UN PROYECTO EDUCATIVO HEZKUNTZA PROIEKTU BAT

Beca Museo Oteiza - Kutxa
Kutxa - Oteiza Museoa Beka

2011



Colabora / Laguntzailea:



El Museo Oteiza convoca la Beca Jorge Oteiza - Kutxa para desarrollar un proyecto educativo a lo largo del periodo 2011-2012. La Beca para un proyecto educativo Jorge Oteiza - Kutxa se regulará conforme a las siguientes **BASES**:

1. Objeto de la Beca

La Beca tiene como objeto promover y potenciar el acercamiento de un sector de público específico (profesorado, niños, jóvenes, adultos, personas con discapacidad, etc.) a la obra y pensamiento de Jorge Oteiza desde un proyecto educativo susceptible de ser ejecutado total o parcialmente en el propio Museo.

2. Requisitos de los solicitantes

Es requisito imprescindible para solicitar esta Beca, estar en posesión del título de diplomado, licenciado, ingeniero o arquitecto.

Entre las diplomaturas, se valorarán las relacionadas con el ámbito educativo. Entre las licenciaturas, se valorarán las de Historia del Arte, Bellas Artes, Filosofía, Filología Hispánica, Filología Vasca, Ciencias de la Educación, Ciencias Informáticas, Turismo, Antropología, Arqueología y Documentación, así como el título de arquitecto.

Los estudios de postgrado, según sus características, y el título de doctor en las mencionadas disciplinas recibirán una consideración especial.

3. Duración de la Beca

La Beca tendrá una duración de doce meses.

Al término de este periodo, y previa petición razonada del becado, la Beca podrá prorrogarse entre seis y doce meses, según las necesidades de la investigación.

La solicitud de prórroga deberá acompañarse del informe final que establece la base 11ª. Para la concesión de la prórroga y determinación del periodo a que se extienda, se tendrá en cuenta el mencionado informe final, en el que se detallan los resultados de la investigación llevada a cabo.

La Comisión Evaluadora podrá suspender el ejercicio de las Becas durante el periodo de tiempo que considere necesario en caso de enfermedad o accidente del beneficiario, o por otra causa grave debidamente acreditada, y con las consecuencias que se estimen oportunas en cada circunstancia.

El disfrute de la Beca y la condición de becado no suponen prestación de servicios, ni relación laboral con el Museo Oteiza.

4. Dotación económica de la Beca y forma de pago

La dotación para esta beca es de 6.000 € en total: 3.000 € en concepto de diseño y concepción del proyecto y 3.000 € para su realización en el Museo, incluyendo la bolsa de viaje, dietas, alojamiento, producción y dinamización del proyecto.

5. Documentación requerida

Los documentos exigidos son los siguientes:

1. Instancia de solicitud. (Anexo 1)
2. Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o pasaporte.
3. Expediente académico universitario, con calificaciones de todas las asignaturas.
4. Historial académico y profesional del aspirante, con indicación de estudios complementarios a la titulación, cursos, publicaciones, becas y trabajos de investigación llevados a cabo, así como cualquier actividad o mérito que el solicitante estime oportuno añadir.
5. Memoria del proyecto de investigación, de una extensión no superior a 15 folios por una cara y a doble espacio. En el proyecto deberán argumentarse los objetivos, los contenidos, la metodología a usar, el público al que va dirigido, la temporalización prevista, el sistema de evaluación y una previsión del presupuesto. Se admitirá un único proyecto por solicitante.

Toda la documentación que se requiere en las presentes bases debe presentarse en castellano.

6. Plazo y lugar de presentación

El plazo de presentación de solicitudes termina el 4 de noviembre de 2011.

Los documentos acreditativos y la solicitud de las Becas se presentarán en el Museo Oteiza, o se enviarán a la dirección:

Secretaría del Museo Oteiza
C/de la Cuesta, 7
31486 Alzuza, Navarra.

La presentación de la solicitud de una Beca implica la aceptación de las bases por las que se rige la presente convocatoria.

7. Comisión Evaluadora

La comisión que ha de evaluar los méritos de los solicitantes estará integrada por los siguientes miembros:

- El Presidente del Patronato de la Fundación Museo Jorge Oteiza Fundazio Museoa o la persona en quien delegue. La delegación deberá producirse en favor de otro miembro del Patronato.
- Un especialista designado por la Dirección del Museo Oteiza
- El director del Museo Oteiza.
- La responsable del Departamento de Didáctica del Museo Oteiza.
- Un representante nombrado por Kutxa.

8. Criterios de evaluación de los méritos aducidos por los solicitantes

La comisión evaluará:

- La memoria del proyecto de investigación: hasta 6 puntos.
- El historial académico y profesional relacionado con el trabajo: hasta 3 puntos.
- El expediente universitario: hasta 1 punto.

La memoria del proyecto de investigación tendrá carácter eliminatorio, por lo que quedarán excluidos todos aquellos aspirantes que no hayan obtenido un mínimo

de 3 puntos en la calificación de la citada memoria, según el siguiente baremo:

- Interés del proyecto de investigación, en atención al estado de los estudios sobre la obra de Jorge Oteiza: hasta 3 puntos.
- Fuentes principales que vayan a utilizarse en la investigación y lugar donde haya de llevarse a cabo: hasta 2 puntos.

Tendrán especial consideración los proyectos que impliquen el trabajo con los fondos artísticos y documentales del Museo Oteiza. A tal efecto, el Museo Oteiza pondrá a disposición de los becados los fondos del legado artístico y documental del escultor, conservados en su colección y archivo.

Las propuestas podrán tener como punto de referencia la trayectoria actual de los programas educativos del Museo o proponer nuevas líneas de actuación.

- Otras consideraciones: hasta 1 punto.

La Comisión Evaluadora podrá solicitar a los candidatos la documentación complementaria que estime pertinente.

Asimismo, la Comisión Evaluadora se reserva el derecho de mantener entrevistas con los candidatos, caso de considerarlo necesario para delimitar el alcance de los proyectos presentados.

La Comisión Evaluadora podrá declarar desierta la Beca convocada.

9. Resolución y reclamaciones

La resolución de la Comisión Evaluadora se hará pública en la sede del Museo Oteiza y en su sitio web www.museooteiza.org, antes del 2 de diciembre de 2011.

En esta resolución se hará constar el nombre del aspirante beneficiado y el del suplente para la Beca otorgada.

El beneficiario deberá comunicar su aceptación por escrito antes del 29 de noviembre de 2011.

A la mencionada aceptación se incorporarán los documentos originales o copias compulsadas oficialmente que se requieren en la base 5ª (puntos 3 y 4) de la presente convocatoria.

Sin perjuicio de lo establecido en la base 14ª, se establece un plazo de reclamaciones de cinco días hábiles a partir de la publicación del nombre del beneficiario. Las reclamaciones se presentarán en la secretaría del museo, en día hábil y en horario de 10 a 15 horas.

La Comisión Evaluadora se pronunciará sobre las reclamaciones en un plazo de cinco días hábiles, una vez concluido el plazo de su presentación.

10. Inicio y duración de la Beca. Renuncia a la Beca

El periodo de vigencia de las Becas otorgadas comienza el día 9 de diciembre de 2011.

La renuncia por cualquier causa a la Beca de investigación concedida deberá comunicarse mediante escrito del becado a la Dirección del Museo Oteiza.

En el caso de que en el momento de la renuncia el investigador hubiera disfrutado de parte de la ayuda, deberá devolver los plazos de la Beca percibidos y de los intereses de demora correspondientes.

En el supuesto de renuncia a la Beca antes de su finalización, el Museo Oteiza se reserva el derecho a utilizar los datos de la investigación aportados hasta entonces por el Becario.

11. Obligaciones del becado

En el ejercicio de su actividad investigadora, los becados se atenderán al Reglamento de los servicios de Conservación, Documentación y Didáctica del Museo Oteiza.

El becado deberá remitir a la Dirección del Museo Oteiza dos informes a lo largo del primer trimestre de 2012, en los que se de cuenta de forma exhaustiva del estado del proyecto, y un informe final de evaluación del proyecto tras la ejecución del mismo, según el siguiente calendario:

- Primer informe:
antes del 1 de marzo de 2012.
- Segundo informe:
antes del 1 de junio de 2012.
- Informe de evaluación de resultados:
antes del 31 de diciembre de 2012.

La ejecución del proyecto educativo deberá desarrollarse a lo largo del segundo semestre de 2012 adaptándose al calendario de actividades del Museo.

La Comisión Evaluadora devolverá al becado para su reelaboración los informes que no respondan a la condición prevista en el párrafo anterior.

El Museo Oteiza se reserva el derecho a utilizar los datos aportados en esta beca durante un año, a partir de la fecha de la conclusión de la misma.

El Museo Oteiza se reserva asimismo el derecho a publicar total o parcialmente el estudio, poniéndolo en conocimiento del investigador y haciendo constar la autoría de la investigación.

Si transcurrido el plazo anterior, el investigador publicara los resultados de su estudio, deberá hacer constar en la publicación el respaldo recibido por la Fundación Museo Jorge Oteiza para la realización del mismo.

12. Incompatibilidades

La percepción de esta Beca es incompatible con el disfrute de cualquier otro tipo de ayuda financiada con fondos públicos o privados, españoles o extranjeros.

13. Incumplimientos

El incumplimiento de las obligaciones adquiridas o la insuficiente calidad del trabajo, dará lugar a la privación temporal o definitiva de la Beca, según decisión de la Comisión Evaluadora, previa escucha del interesado.

14. Recursos

Contra la resolución de adjudicación de la Beca y las bases contenidas en la presente convocatoria, cabe interponer recurso ante los Juzgados de lo contencioso-administrativo de Navarra, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a la publicación de la resolución.

Oteiza Museoak 2011-2012 bitartean hezkuntza proiektu bat garatzeko Jorge Oteiza - Kutxa Beka deialdia egiten du. Hezkuntza proiektu baterako Jorge Oteiza - Kutxa Beka **OINARRI** hauei jarraiki arautuko da:

1. Bekaren xedea

Beka honen xedea Jorge Oteizaren obra eta pentsamoldea sustatzea eta publiko zehatz bati (irakasle, ume, gazte, heldu, pertsona ezgaitu eta abarri) hurbiltzea da. Hori guztia neurri batean edo erabat Museoan bertan egin ahal izango den hezkuntza proiektu baten bidez.

2. Eskatzaileen betebeharrak

Beka hau eskatzeko ezinbestekoa da diplomatu, lizentziatu, injineru edo arkitekto titulua izatea.

Diplomaturen artean balio berezia emango zaie hezkuntzarekin lotura dutenei. Eta lizentziaturen artean, berriz, honakoak baloratuko dira: Artearen Historia, Arte Ederak, Filosofia, Filologia Hispaniarra, Euskal Filologia, Hezkuntza Zientziak, Antropologia, Arkeologia, eta Dokumentazioa, eta baita arkitekturako titulua ere.

Gradu-osteko ikasketek, hauen ezaugarrien arabera, eta aipatutako diziplina horietako doktore tituluak ere, tratu berezia izango dute.

3. Bekaren iraupena

Bekak hamabi hilabeteko iraupena izango du.

Epe hau igaro ostean, eta bekadunak, aurrez, eskari arrazoitua egin duela, beka hau luzatu ahal izango da sei eta

hamabi hilabeteko beste epe batez, ikerkuntza lanaren beharren arabera.

Luzapenerako eskariarekin batera, 11. oinarriak ezartzen duen amaierako txostena aurkeztu beharko da. Eskatutako luzapena emateko eta zenbateko denbora hartuko duen zehazteko, amaierako txosten horixe hartuko da kontuan, bertan zehaztu egiten dira eta burututako ikerlanaren emaitzak.

Ebaluazio Batzordeak beketako edozein etenik uztea erabaki ahal izango du, beharrezko irizten dion epean zehar, onuradunari gaixotasun edo istripuren bat gertatuz gero edo behar bezala egiaztatutako beste arrazoi larriren baten eraginez, eta kasuan-kasuan egoki ikusten diren ondorioez.

Beka izateak eta bekaduna izateak ez du inolako zerbitzu-prestaziorik zein lan-harremanik eragingo Oteiza Museoarekiko.

4. Bekaren zenbatekoa eta ordaintzeko era

Beka honek 6.000 €-ko kopurua izango du guztira: 3.000 € proiektua sortu eta diseinatzeko, eta 3.000 € proiektua Museoan gauzatzeko (bidaiak, dietak, ostu-gastuak eta proiektuaren ekoizpena eta dinamizazioa kopuru horren barnean egongo dira).

5. Eskatutako dokumentazioa

Eskatzen diren dokumentuak honakoak dira:

1. Eskarirako instantzia. (1. eranskina)
2. Nortasun agiriaren edo pasaportearen fotokopia.

3. Unibertsitateko espediente akademikoa, ikasgai guztietako kalifikazioez.
4. Bekadungaiaren ikasketa eta lanbide historiala, honetan adieraziz tituluaren ikasketa osagarriak, egindako ikastaroak, argitalpenak, lortutako bekak, ikerkuntza lanak eta eskatzaileak aurkezteari egoki irizten dion beste edozein lan edo meritu.
5. Egin behar den ikerkuntza proiektuaren memoria, alde batetik eta espazio bikoitzaz idatzirik 15 orritik gora egin gabe. Proiektuan helburuak, edukia, erabiliko den metodologia, proiektua zuzenduko zaion publikoa, aurreikusten den epe edo denborabanaketa, ebaluazio sistema eta aurrekontuaren aurreikuspena azalduko dira. Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazio guztia gaztelaniaz aurkeztu behar da.

6. Eskariak aurkezteko epea eta tokia

Eskariak aurkezteko epea 2011ko azaroaren 4an amaituko da.

Frogagiriak eta beka eskariak Oteiza Museoan aurkeztuko dira, edo bestela ondoko helbidera bidali:

Oteiza Museoaren Idazkaritza
Cuesta kalea, 7
31486 Altzuza, Nafarroa.

Beka eskuratzeko eskaria aurkezteak berekin dakar deialdi hau arautzen duten Oinarriak onartzea.

7. Ebaluazio Batzordea

Eskatzaileen merituak ebaluatuko dituen Batzordeko kideak honakoak izango dira:

- Jorge Oteiza Museo Fundazioaren Patronatuko lehendakaria edo honek esku emandako pertsona. Esku ematerik gertatzen bada, Patronatuko beste kide bati egin beharko zaio. Esku ematerik gertatzen bada, Patronatuko beste kide bati egin beharko zaio.
- Oteiza Museoaren Zuzendaritzak izendatutako aditu bat.
- Oteiza Museoaren zuzendaria.
- Oteiza Museoko Didaktika arduraduna.
- Kutxak izendatutako ordezkari bat.

8. Eskatzaileek adierazitako merituak ebaluatzeko irizpideak

Batzordeak honakoak ebaluatuko ditu:

- Ikerkuntza proiektuaren memoria: gehienez 6 puntu.
- Lan honekin lotutako ikasketa eta lan historiala: gehienez 3 puntu.
- Unibertsitate espedienteak: gehienez puntu 1.

Ikerkuntza proiektuaren memoria baztertzailerik izango da; halaz, memoria honen kalifikazioan gutxienez 3 puntu lortzen ez dituzten bekadungai guztiak kanpoan geratuko dira. Kalifikaziorako baremoa ondokoa izango da:

- Ikerkuntza proiektuaren interesgarritasuna, Jorge Oteizaren obrari buruzko azterlanen egoeraren araberak: gehienez 3 puntu.
- Ikerlanean erabiliko diren iturri nagusiak eta ikerlana egingo den lekua: gehienez 2 puntu.

Oteiza Museoko arte eta agiri funtsak erabili behar dituzten ikerkuntza proiektuei arreta berezia eskainiko zaie. Horretarako, Oteiza Museoak bekadunen eskura jarriko ditu eskultorearen legatu artistiko eta dokumentaleko funtsak, haren bilduma eta artxiboan gordeak.

- Beste zenbait: gehienez puntu 1.

Ebaluazio Batzordeak egoki irizten dion dokumentazio osagarria eskatu ahal izango die bekadungai.

Era berean, Ebaluazio Batzordeak beretzat gordeko du bekadungaiekin elkarrizketak egiteko eskubidea, aurkezten diren proiektuen irismena zehaztearren beharrezko ikusten badu.

Ebaluazio Batzordeak hutsik utzi ahal izango du deitutako beka.

9. Erabakia eta erreklamazioak

Ebaluazio Batzordearen erabakia jendaurrean zabalduko da, Oteiza Museoaren egoitzan eta bere web orrian, www.museoteiza.org helbidean, 2011ko abenduaren 2a baino lehen.

Erabaki honetan erasota utziko da bekadungai aukeratuaren izena, emandako bekarako ordezkorekin batera.

Bekadun ateratzen denak 2011ko azaroaren 29a baino lehen eman beharko du aditzera, idatziz, beka onartzen dutela.

Onarpen horri erantsi egingo zaizkio deialdi honetako 5. oinarrian (3. eta 4. puntuetan) eskatzen diren agiri originalak edo kopia konpultsatuak.

14. oinarrian ezarritakoaren kaltetan izan gabe, bost laneguneko epe bat izango da, onuradunaren izena argitaratzen denetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak Museoko Idazkaritzan aurkeztu ahal izango dira, lanegunetan, 10:00etatik 15:00ak arteko ordutegian.

Ebaluazio Batzordeak bost laneguneko epean emango du erreklamazioen gaineko erabakia, horiek aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

10. Bekaren hasiera eta iraupena. Bekari uko egitea

Emandako beken indarraldia 2011ko abenduaren 9an hasiko da.

Arrazoia dena delarik, emandako ikerkuntza bekari uko eginez gero, bekadunak idatziz eman beharko dio honen berri Jorge Oteiza Museoaren zuzendaritzari.

Uko egite horren unean ikerlariak laguntzaren zatiren bat dagoeneko erabilia badu, jasotako beka zatiak itzuli beharko ditu.

Bekari amaitu aurretik uko eginez gero, Oteiza Museoak erabili ahal izango du bekadunak une horretara arte emandako ikerkuntzako datuak.

11. Bekadunaren betebeharrak

Bere ikerkuntza jardueran zehar, bekadunek jarraitu egin beharko dute Oteiza Museoko Kontserbazio eta Dokumentazio zerbitzuen araudia.

Bekadunak ikerlanaren egoerari buruzko txosten bat bidaliko dio Oteiza Museoaren Zuzendaritzari, hiru hilean behin, zehatz-mehatz azalduz ikerlanaren egoera; honetaz gain, ikerlanaren amaierako txosten bat igorri beharko dio, ondoko egutegiaren arabera:

- Lehen txostena:
2012eko martxoaren 1a baino lehen.
- Bigarren txostena:
2012eko ekainaren 1a baino lehen.
- Emaizten ebaluaketaren txostena:
2012eko abenduaren 31 baino lehen.

Hezkuntza proiektua 2012eko bigarren seihilekoan zehar garatu beharko da, Museoaren jarduera-egutegira egokituta.

Ebaluazio Batzordeak bekadunari itzuliko dizkio aurreko paragrafoan aurreikusitako baldintzari egokitzen ez zaizkion txostenak, beregin ditzan.

Oteiza Museoak eskubidea izango du ikerlan honetatik ateratako datuak urtebetez erabiltzeko. Epe hau beka amaitzen denetik hasita kontatuko da.

Oteiza Museoak, halaber, beretzat izango du ikerlana osorik edo zati batez argitaratzeko eskubidea, ikerlariari honen berri emanetz betiere, eta ikerlanaren egilea nor den erasota utziz.

Aipatutako epea igaro ondoren ikerlariak bere azterlanaren emaitzak argitaratzen baditu, argitalpen horretan erasota utzi beharko du Jorge Oteiza Museo Fundazioak lana egin ahal izateko eman dion laguntza.

12. Bateriaezintasunak

Beka hau jasoz gero ezin da diru publiko edo pribatuz, espainiar edo atzerrikoen finantzatutako beste inolako laguntzarik izan.

13. Ez betetzea

Hartutako betekizunak bete ezean edo lana kalitate kaxkarrekoa izanez gero, beka aldi baterako edo behin betiko kentzea gerta daiteke, interesatuari aurrez entzunik Ebaluazio Batzordeak erabakitzen duenaren arabera.

14. Helegiteak

Bekaren esleipen erabakiaren eta deialdi honetan jasotako oinarrien aurka helegitea aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Nafarroako Epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.